

BATASUNA. EAEko lehendakariaren ekimenak «esparru berri baterako trantsizio bidea» zapuzten duela uste du

Ibarretxeren deia iruzurra dela esan, eta bihar Iruñera joatera deitu du Batasunak

Barandallaren aldeko manifestazioarekin bat egin dute mahaikideek

Humberto Unzueta | **BILBO**

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak biharko deituriko manifestazioak esparru politiko baterako egungo trantsizio bidea «trabatzen» duela iritzita, Barandallaren eta oro har euskal presoekin eskubideen alde Iruñean bihar egingo den ekimenen parte hartzeko deia egin zuen atzo Batasunak. Areago, Joseba Permach mahaikideak ezker abertzalearen aurka egindako «kontramantestazio-tzat» jo zuen *ETA kanpora* lelopean bihar Bilbon egingo den mobilizazioa.

Permachekin batera, Mahai Nazionaleko beste hainbat kide izan ziren atzoko agerraldian, hala nola Arnaldo Otegi, Xabi Larralde, Juan Kruz Aldasoro, Ibon Arbulu eta Juan Joxe Petrikorena.

Bilboko manifestazioa «iruzur» baterako deialdia dela azpimarratu zuen Permachek. EAJk ezker abertzalearen aurka abiatutako estrategiaren barruan kokatu zuen deialdia, eta iraganean alderdi jeltzaleak antolatutako beste bi manifestazioekin alderatu zuen biharkoa.

Hala, trantsizio garaian Las Palomasen eta geroago Aljerko mahaiko negoziazio garaian alderdi jeltzaleak antolatu zituen manifestazioak gogoratu zituen

JOSEBA PERMACH

Batasuneko mahaikidea

«Ziur gaude EAJren barruan askok ez dutela ulertzen Ibarretxek deituriko manifestazioa»

Permachek: «Biak ala biak EAJk historikoki erakutsi duen saldukeriaren adibide dira, eta igandekoa hirugarrena izango da».

Bilboko deialdiari «iruzurra» iritzita, bertara ez joateko deia egin zuen Permachek, eta Iruñean Bautista Barandalla askatzearen eta eskubideen alde eta oro har euskal presoekin eskubideen alde egingo den manifestazioan parte hartzeko gonbita egin zuen. Bere hitzetan, «igandean, Iruñean, beste manifestazio bat egongo da, eta giza eskubideen aldeko apustua egiten dutenek bertan behar lukete egon, benetako demokratak badira».

EAJko militanteei deia

Permachen irudiko, «alderdi jeltzalearen barruan askok ez du ulertzen» Ibarretxeren manifestazioa, eta horiei zuzendu zitzaizen esateko Iruñean bada goela beste ekimen bat giza eskubideen aldeko jarrera agertzeko.

Egoeraren azterketa politiko egiterakoan, azken boladan ezker abertzalearen aurkako erasoak «areagotu» egin direla salatu eta Euskal Herria «salbuespen egoeran» dagoela adierazi zuen. Permachek abenduaren 19an euskal gizarteak eman zuen «erantzuna» txalotu zuen, eta egoerari herria «duintasunez» erantzuten ari zaiola adierazi.

Euskal Herria esparru politiko berri baterako «trantsizio egoera» batean dagoela berretsi zuen Permachek, eta bide horretan bultzaka ari diren hainbat eragileren lana aipatu zuen horren erakusgarri. Besteak beste, Udalbiltzak onartu berri duen Euskal Herriaren eskubideen Karta, euskararen aldeko dinamika ugariak eta UEUK berriki irakaskuntza sistema propio baten alde egin duen apustua azpimarratu zituen.

Ibarretxek deituriko manifestazioa dinamika horien ildo «zapuztera» datorrela salatu zuen Permachek, eta hari berezik «ezker abertzalearen aurkako kontramantestazioa» izatea egotzi zion. Bere esanetan, «Ibarretxek ez du ikusten iaz 110 torturatu izan zirela, 650 preso daudela etxetik urrun, Batasuna ilegalizatu dutela... hori guztia ez du ikusten Ibarretxek edo ez dio axola».



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Arnaldo Otegi, Xabi Larralde eta Joseba Permach, atzo.

BAUTISTA BARANDALLAren ASKATASUNaren eta preso gaixoen eskubideen alde

BIHAR MANIFESTAZIO NAZIONALA
12'00etan IRUÑEAKO GOLEM ZINEMATIK

Acero anaiak AEK-ko irakasleak. Agustin Goikoetxea Aimar Olaizola Arozena Ainara Lertxundi Aitor Elkoro Sarasua Aitor Esnaola Dorronsoro Aitor Mendiluze Alazne Basañez Alberto Lopez de la Calle Alex Larretxe Amagoia Mujika Amaia Ereñaga Amaia Gonzalez Amaia Ozaca Amaia Ugarte Amalatz Ametz Arzallus Amparo Lasheras Ana Goñi Ana Isabel Arbulu Ana Lucia Villate Andoni Basabe Andoni Goikoetxea Andrea Ane Agirregomezkorta Angel Ordoñez Angelina Gutierrez Anjel Duhalde Anjel Arrospide Arabako AFAPPSRI Arabako Emakume Asanblada Arabako Salhaketa Aralar Arantxa Plaza Aritz Berraondo Alberdi Aritz Sorzabal Asier Korta Asier Olaizola Arozena Asier Serrano Asisko Urmeneta Askapena Azkoitiko Emakume Asanblada Batartze Alkorta Batzarre Bego Arrondo Bego Zubia Benjamin Ruiz Berri Txarrak Bilgune Feminista Bittor Alkiza Bizkaiko EHE Carlos Dronda CEM Coordinadora de Grupos de Mujeres Jovenes de Bilbo David Dominguez David Goñi Serrano David Lazkanoiturburu Donostia Ospitaleko LAB-eko Sail Sindikala EHNE Elkarri Emakume Internazionalistak	Ernesto Delas ESK Esther Lakasta Estitxu Eizagirre Euskal Herriko Apaiz Koordinakundea Euskal Herriko Kristau Elkarte Herriarrak Eva Domingo Ezkertiar Independentistak Felix Iriarte Felix Placer Ugarte apaiza Fermín Munariz Fernando Goñi Erize Flores Nazabal Garbiñe Rekarte Gutierrez Gari Berasaluze Gasteizko gazte asanblada Gasteizkoak Gazte Abertzaleak Gazte Mugimendua Gemma Agesta Gloria Rekarte Gorka Aginagalde Gorka Sagastume Yubero Gurasoak Haritz Saez Zabala Hasier Etxeberria Hautsi Herria 2000 Eliza Hiru Ibon Irazola Idoia Sola Idoia Zabaleta Igor Elortza Igor Esnaola IKA Ikasle Abertzaleak Iker Muruamendiarrak Alberdi Imanol Agirre Imanol Amiano Imanol Beroitz Inaxio Goioaga Iñaki Altuna Iñaki Aurrekoetxea Iñaki Azurmendi Iñaki Bernal Goikoetxea Iñaki Iriondo Iñaki Lasa Igor Jauregi Iñaki Mendiguren Iñaki Murua Iñaki Olasolo Iñaki Telleria Iñaki Vigor Ion Ander Ramirez Ion Larrea Irati Anda Iruñeko CGT Itziar Izagirre Izarraizpeko Sarginak Izaskun Labeaga Jaione Ariztorena Jaso Ikastolako Lan Batzordea	Javi Esparza Jesus Valencia Jokin Etxaniz Uribesalgo Jolanda Etxarri Jon Alonso Jon Beloki Jon Lapatzaran Jon Mikel Aramendi Jose Angel Torrez Jose Gabirondo Jose Ignacio Flores Jose Luis Otamendi Jose Luis Padron Jose Mari Zezeaga Joseba Armona Joseba Goñi Alzueta (Herria 2000 elizako koordinatzailea) Joseba Salbador Joseba Tapia Joseba Vivanco Josemi Benitez Josu Juaristi Josu Zabalza Josune Gorostidi Joxe Martin Bustinza Joxean Muñoz Joxerra Bustillo Juan Manuel Erasun Juanjo Basterra Juanjo Erdozia Juantxo Koka Perez Karmele Elizarian Karolina Almagia Kepa Petralanda Kirmen Uribe Komite Internazionalistak Kristina Andres LAB Larraitz Munioa Laxaro Azkune Lexuri Ugarte Lila Gorriak Lilen Garraxia Luisa Reizabal Lurdes Etxeberria Lutxo Egia M ^a Eugenia Martinez M ^a Jesus Garcia Maider del Olmo Manolo Cañameres Maria Lizardi Mariasun Monzon Maribel Astiz Marta Biurrun Martin Alustiza Gereñu Martin Aramendi Martin Sarasua Martina Iturrioz Martxelo Diaz Miguel Angel Martin Mikel Aranburu Mikel Asurmendi Mikel Jauregi Mikel Markez Mikel Mendizabal Mikel Ruiz Mikel Saralegi Alvira	Mikel Taberna Irazoki Mikel Urkola Mila Barca Mirian Viteri Nacho Esparza Nafarroako EHE Nafarroako Hemen eta Munduan Nafarroako Mugarik gabe Nafarroako SOS Arazakeria Nafarroako STEE-EILAS Nekane Erauskin Nerea Goti Nuarbe sokatira Elkartea Oier Zearra Garabieta Oihana Jauregi Oingo IKA euskaltzia Olga Barrio Onatiko Laixan Euskal Elkartea Orreaga fundazioa Oscar Lasa Oskar Bañuelos Pablo Cabeza Pablo Ruiz de Aretxabaleta Paddy Pako Sudupe Patxi Agirre Patxi Angulo Patxi Artze Patxi Marta Blanco Patxi Xabier Fernandez Peio Cañameres Pili Gonzalez Pipi Emakume Taldea Rafaela Yarza Ricardo Ederro Roberto Acebes Roberto Martinez <i>Tiko</i> Santurtzizantzi Ekimena Sara Beloki Sebastopoloko tititireroak Skalariak Sodepaz Navarra Sonia Fenasiain Sortzen-eko Iraunkorra Soziedad Alkoholika Su ta Gar Sustrai Colina Takolo, Pirritx eta Porrotx Tomas Arribabalaga TTLT Txotxe Andueza Unai Iturriaga Urtzi Urrutikoetxea Xabier Artola Xabier Galarreta Xabier Isasi Xabier Mendiguren Elizegi Xole Aramendi Zaldibiko Damiselak Zarauzko Sarginak Zea Mays Zuzen Ekintza Taldea
--	---	--	---



etxerat

ETXERAT. Deialdiarekin bat egiteko deia egin dio Etxerat-ek gizarteari

Ia 250 pertsona eta taldek bat egin dute Barandallaren aldeko manifestazioarekin

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Bautista Barandalla euskal preso politikoa askatzea eskatzeko bihar Iruñean egingo den manifestazioak atxikimendu ugari jaso ditu. Dagoeneko 247 pertsonak eta taldek eman diote babesa ekimenari. Manifestazioa eguerdiko 12:00etan irtengo da Golem zinemetatik.

Erakunde eta taldeen artean, honako hauek egin dute bat manifestazioarekin, besteak beste: Askapena, Andrea,

Batzarre, Bilgune Feminista, Emakume Internazionalistak, EHNE, Elkarri, ESK, Gazte Abertzaleak, Gazte Mugimendua, Hiru, IKA, Ikasle Abertzaleak, LAB, Askatasuna, Komite Internazionalistak, Nuarbe Sokatira Taldea eta Zuzen Ekintza Taldea.

Izen ezagunak

Pertsona ezagunen artean daude Aimar eta Asier Olaizola pilotariak; Anjel Arrospide aikolaria; Amets Arzalluz, Aitor

Mendiluze, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Sustrai Colina eta Mikel Mendizabal bertsolariak; Anje Duhalde, Asier Serrano, Benito Lertxundi, Joseba Tapia eta Mikel Markez abeslariak; Zea Mays, Su ta Gar, Skalariak, Soziedad Alkoholika eta Berri Txarrak musika taldeak; Igor Jauregi, Roberto Martinez *Tiko* eta Bittor Alkiza futbol jokalariek; Jose Luis Padron, Kirmen Uribe eta Xabier Mendiguren Elizegi idazleak; Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoak; eta Sebastopoloko Tititireroak.

Etxerat-ek dei egin dio gizarteari manifestaziora joateko, bertan «preso eta euren senideen oinarritzko eskubideak betetzeko eskatuko baita».